

Bertsolaritza » Gai librean

«Futbol, futbol, futbol...»



Sustrai Colina

Igande gaua, futbol laburpe-
nak telebistan. Kronikak,
analisiak eta tabernako ko-
mentarioak. Ez dago beste al-
bisterik munduan. Caparrosen
agerraldia soilik da hil edo bizikoa.
Zeresango ote du misterrak? Onar-
tuko al ditu leporatzen zaizkionak?
Izango al du galderei erantzuteko
gogorik?

«San Mameseko zaleen indarra»
baliatu behar dutela esan du ha-
rro. Zaleek egiten dutela jokalaria
handi, ausart, eraginkor. Hamar
mila entzuleren aurrean hamar-
ren aurrean baino lasaia ego-
ten den bertsolariarekin oroitua
naiz. Zenbat eta saltsa gehiago
egon orduan eta gusturago kanta-
tzen duen harekin.

Pribilegiatuak baikara. Entzu-
leria futbolizatu zaigun arren, de-
noi jotzen digu txalo. Denon bertso
onenek lehertzen dute giroa. Are
gehiago, entzule beregain eta bu-
rujabe bat daukagu. Nork isildu zi-
tuen Zubeldia kartzelakoa pentsa-
tzen ari zen bitartean entzun ziren
oihuak? Ez aurkezleak, ez bertso-
lariek, ez antolatzaileek, entzule-
ak berak.

Gero, egia da, mundu guztiak
futbolaz dakien gisan, denek daki-
tela bertsoaz. Egia da, zenbaitek
txapelketako bonua ordaindu or-
duko dena eta ezerri buruz edozer
eta edonola esateko eskubidea
hartzen duela. Egia da, bertso
onak gogoratu beharrean potxoak
eta petxoak zerrendatuz joaten di-

rela biharamunak. Egia da, ni ere
jokoz kanpo sentitzen naizela sa-
rri. Eta zer?

Ez dut uste zaleak gu baino
gehiago futbolizatu direnik. Egu-
tegieta gure argazkiak jartzen di-
tuzte, agendetan agertzen gara,
instituetako saioak autografoak
firmatzen eta argazkiak ateratzen
bukatzen ditugu, txapelketa bez-
peretan futbolariak bezain topiko
handiak kontatzen dizkiogu prent-
sari (okerrena da, nik behintzat,
sinetsita kontatzen ditudala); fi-
nal ostean prentsaurrekoak
ematen ditugu denek ikusi duten
partidaren gakoak zein izan diren
kontatzeko... Eskerrak ez dagoen
Hitzetik Hortzera saioan Teledo-
nostin izaten diren Realari buruz-

ko mahai-inguru negargarri horie-
tako bat bihurtzeko asmorik!

Ez dakit gizartearen, kapitalis-
moaren, ala globalizazioaren errua
den. Baina gurea ere bada. Askotan
egin izan dugu amets ertzeko filo-
safia bat garatuz gune-gunera iris-
tearekin; batzuetan, ordea, gune-
ko ikuspegiak ertzean aplikatzen ga-
biltzala dirudi. Erosoagoa izango
da, errazagoa, baina ez dakit zenba-
teraino den interesgarria.

Eta igande gaueko futbol labur-
penak interesgarriak dira? Kroni-
kak, analisiak eta tabernako ko-
mentarioak. Ez dago beste albiste-
rik munduan. Caparrosek bukatu
du bere agerraldia. Ez du ezer esan
bertsoari eta txapelketari buruz,
urte berri on baino ez.

Julien Gracq hil da,
Frantziako idazle
garaikide esanguratsua

LITERATURA ■ Joan den larunbatean
hil zen Julien Gracq, Frantziako li-
teratura garaikidearen idazle
esanguratsua, 97 urte zituela. 19
obra utzi ditu, Alemaniako erro-
mantizismoan inspiratutakoak as-
ko. Sariakin oso kritikoa, Goncourt
jasotzeari uko egin zion 1951n.

Gasteiz saria jaso dute
Erkiziak, Mujika Iraolak
eta Zubizarretak

LITERATURA ■ Lola Erkiziak eta Ina-
zio Mujika Iraolak jaso dute haur li-
teraturako itzulpengintzaren Gas-
teiz saria, Moritz Petzalemaniarra-
ren *Zer da zalaparta hau* lanaga-
tik. Gazteen atalean, berriz, Patxi
Zubizarretak irabazi du *Ibrahim
jauna eta Koroaren loreak* Eric
Schmitt lanagatik.

Baxenabartarren
bertsoen muina

Jean Pierre Mendibururen
eta Ernest Alkaten
bertsoak argitaratu dituzte
Auspoako bi liburutan

AMAIA ELIZONDO

«Mendiburuk, ene ustez, ongi lan-
du du bertsolaritza, lan eginez bix-
tan dena, aireak ikasi eta berexi
ditu ongi, lerro bukaerak ere landu
ditu, eta errima aberatsak azpima-
rratu». Hitz horiekin erantzun
zion Ernest Alkatek Emile Larreri
Jean Pierre Mendibururi buruzko
galderari («Nolako bertsularia da
Mendiburu?»). Auspoa bilduma-
ren *Ene bertsuen feiria* liburuan
irakur daiteke elkarrizketa osoa.
Horrez gain, liburuak Mendibu-
ren bertso bilduma zabala biltzen
du. Argitaratu duten bigarren li-
buruan, *Ene ezkilaren dangak*, al-
diz, Ernest Alkaten bertsoen bil-
duma jasotzen da. Bietan jarritako
bertsoak daude, eta tartean behin,
bat-batekoren bat ere ageri da
orrialdeetan.

Jean Pierre Mendiburu bertso-
laria Baxenabarren sortu zen, He-
leta herrian. Ernest Alkatekin as-
kotan egin ohi du bertsoan. «Ar-
dura elgarrekin ibiltzen ginen
Hegoaldean bereziki, baditugu
zonbait kezka jasanik, bidean gal-
duak ere ibili gira zonbait aldiz eta
hango mutur beltzeri zerbaiten es-
katzeko hango erderarik ez jakin.

Zonbait irri ere badugu eginik»,
azaltzen du Alkatek liburuaren hi-
tzaurrean jaso duten elkarrizke-
tan.

Mendibururen idatzizko bertso-
ez galdetzean, hitz onak ditu Al-
katek: «Mendiburuk ainitz idatzi
du, ainitz sariketetan parte hartu
eta asko sari ere irabazi». Bi bertso-
lariek, bai Mendiburuk, baita Al-
katek ere, aurreko belaunaldietan
bertsolarien eragin nabarmena
izan dute. Izan ere, Alkatentzat
«Xalbadorrek, Mattinek, bete dute
ederki beren eginbidea eta lekuko-
tasunak utzi. Xanpunek eta Arros-
sagaray zenak ere egin dute bere-
na eta bedera liburu eder utzi».

Mendiburuk behin baino gehia-
gotan irabazi zuen Nafarroako
bertsolari txapelketa. Alkatek di-
on bezala, «biak bertsoan desber-
dinak ginen. Mendiburu xapelke-
tako bertsularia, aireak menpera-
tzen, bukaera aberatsak eta
bertze». Bestalde, bertso bildu-
man hainbat aldizkaritan argita-
ratutako bertsoak ere aurki daitez-
ke. Hala nola *Zeruko Argia* eta
Herria aldizkarietarako idatzita-
koak.

Auspoa bildumaren hurrengo li-
buruan Ernest Alkaten bertsoak
bildu dituzte. «Publikoaren aitzin-
nean du gure iholdiarrak bere jo-
koa; konpainia gizona, baso baten
pagatzeko lehena, nahiz pagatza-
leak ere aurkitzen dituzten hola-
koek, beti umore ona eta irria na-
sai, txiste edo arraileria batekin,



Jean Pierre Mendiburu Bilbon kantari, Jexux Arzallusekin. BERRIA

horra lehen agertzen hartan bere-
an lagunak eginak eta publikoa be-
retua», azaldu du Emile Larrek li-
buruaren hitzaurrean.

LAHARRAGAKO BERTSOLARIA. Alkat Ba-
xenabarren sortu zen, Iholdiko
Uhartea etxean. Egun, Armenda-
ritzeko Laharraga etxean bizi da
famiariarekin. Liburuan bertso

**Mendiburuk eta Alkatek
aurreko belaunaldietako
bertsolarien eragin
nabarmena izan dute**

ugari irakurtzeko aukera eskain-
tzen da: «Loiolako Iñazio haundia-
ri eskainiak zaizkion 50 bertsoe-
tan, nola zen Azpeitian sortu gure
San Frantsesen laguna duela 500
urte, Montserrat, Erroma eta Pa-
risen gandi».

Baxenabarreko bertsolariak bi
ezaugarri nagusi ditu Larrerren-
tzat: «Lasaitasuna» eta «plazagi-
».

**Auspoako bertso bilduman,
hainbat aldizkaritan
argitaratutako bertso ugari
aurki daitezke**

zona» hitzak erabiltzen ditu Alkat
nolakoa den esateko. Bertsolari-
tzaren bi alderdiak berekin dituen
gizona da; Euskal Herriko plaza-
rik gehienetan kantatu du, batez
ere Iparraldekoetan; eta, bestetik,
bertso sail anitz eman ditu papere-
tan.

Ene ezkilaren dangak liburuan,
«irakurle kantariak aurkituko du
plazan emanen diren kantu eta
lanttorik asko, eta huts bat eta es-
kas bat izanen zuen liburu honek
hoik oro ez balitu», iritzi dio La-
rrek. Bertsoa, behintzat, errege da
orri horietan.